



Fitxa honetan eta hurrengoan, komaren erabilera oker edo badaezpadako batzuk bildu ditugu, sarrienak, testuetan halakoak saihesteko. Koma nola erabili azaltzeak luze joko luke, erabilera guztiak banan-banan aztertuz gero; beraz, beste baterako utziko dugu eginkizun hori.

- Aste honetako fitxa: *Komaren erabilera badaezpadako batzuk (I)*
- Hurrengo fitxa: *Komaren erabilera badaezpadako batzuk (II)*



## Komaren erabilera badaezpadako batzuk (I)

Koma eta...

- subjektua
- tartekiak

## Komaren erabilera badaezpadako batzuk (II)

Koma mendeko perpausaren barruan

Koma eta...

- perpaus osagarriak
- zehar-galderak
- *baina*
- galdegaia
- existentzia-esapideak
- gutunetako eta mezuetoako agurrak
- etenpuntuak



## Subjektua eta koma

Subjektua ez da komaz bereizten predikatutik; bestela esanda, subjektuaren ostean, salbuespenak salbuespen\*, ez da koma bakarra jartzen:

- Koldok bi liburu ekarri ditu.
  - \*Koldok, bi liburu ekarri ditu.
- Horrek guztiak gatazka asko konpondu eta gerrak saihestu zituen.
  - \*Horrek guztiak, gatazka asko konpondu eta gerrak saihestu zituen.
- Sagu emeak kantuan aritzen dira sexu-bikotekidea bilatzeko.
  - \*Sagu emeak, kantuan aritzen dira sexu-bikotekidea bilatzeko.
- Itsas armada batzuetako ontziek badute urpekoak hautemateko, sailkatzeko eta jarraitzeko tresneria.
  - \*Itsas armada batzuetako ontziek, badute urpekoak hautemateko, sailkatzeko eta jarraitzeko tresneria.

\* Ikus 6. eta 7. diapositibak.

### Subjektua eta koma

- Kontuan hartzekoak: tartekiak.

Tartekiak koma bidez bereizten dira perpausaren gainerako osagaietatik; subjektuaren ostean tartekirik badago, subjektuaren eskuinean ageri den koma tartekiari dagokio, ez subjektuari:

- Koldok, Mikelen lagunak, bi liburu ekarri ditu.
- Koldok, ostera, bi liburu ekarri ditu.
- Koldok, Estatu Batuetatik etorri zenean, bi liburu ekarri zizkidan.
- Itsas armada batzuetako ontziek, esaterako, badute urpekoak hautemateko, sailkatzeko eta jarraitzeko tresneria.
- Hala ere, sinadura akustikoa, hatz-markak ez bezala, aldakorra da.
- Zundaketa bertikalaren tramoak, batez beste, 3 kilometrotik gorakoa izan daiteke.
- Batzuek, lotsagatik edo beldurragatik, ihes egiten diete arazoei.



## Subjektua eta koma

### ○ Kontuan hartzekoak: tartekiak.

Hain zuzen, tartekiak baliatzea izan daiteke bide egokia subjektuaren amaiera markatzeko, subjektua aditzetik urrun geratzen denean:

- 1914an, Reginald Fessenden ingeniari kanadarrak hiru kilometroko distantziara zegoen izozmendi bat hautemateko gai zen sistema experimental bat sortu zuen.
- Reginald Fessenden ingeniari kanadarrak, 1914an, hiru kilometroko distantziara zegoen izozmendi bat hautemateko gai zen sistema experimental bat sortu zuen.
- Garuna bi belarrietara iristen diren soinu-uhinen desfase txikiez baliatzen da norabidea zehazteko.
- Garuna, norabidea zehazteko, bi belarrietara iristen diren soinu-uhinen desfase txikiez baliatzen da.



## Subjektua eta koma

- Kontuan hartzekoak: aditza isiltzea.

Aditza isiltzen denean, subjektuaren ostean koma ager daiteke: aukerakoa da koma hori.

- Egitura zurrunek bibrazio-periodo laburra dute; egitura malguagoek(,) periodo luzea.
- Askotan, artearen eta entretenimenduaren arteko bereizketaren atzean, uste bat egon ohi da, aski agerian: artea intelektuala da, eta entretenimendua(,) azalekoa.
- Sarrera-irekidurak konpartimentuetan jarri behar dira; erauzte-irekidurak(,) zirkulazio-gune komunetan.





## Tartekiak eta koma

Zenbaitetan, gaizki-ulertuak saihestu beharrez edo tartekiaren barruan koma erabili behar delako, egokiagoa izaten da tartekiak parentesiz edo marra luzez banantzera komaz banantzera baino:

- *Frackingak, erabili den herrietan —Estatu Batuetan eta Kanadan—, hainbat kalte eragin ditu.*
  - # *Frackingak, erabili den herrietan* , *Estatu Batuetan eta Kanadan*, hainbat kalte eragin ditu.
- *Horretan ere aurrea hartu dio naturak teknologiari: animalia batzuk (izurdeak eta saguzarrak, adibidez) soinuaz baliatzen dira objektuak hautemateko.*
  - # *Horretan ere aurrea hartu dio naturak teknologiari: animalia batzuk, izurdeak eta saguzarrak, adibidez*, soinuaz baliatzen dira objektuak hautemateko.